

MATERIALISMO HISTERIKOA

Publikoa



UXUE APAOLAZA LARREA

China antes del comunismo ateratzen zait bideoren bat ikusi nahi dudana bakoitzean, dantza ikuskizun baten iragarria. Edo Oral B, edo Katy Perry janaria eskatu eta eskatu. Baina jasangarria dela erabaki dugu telebistako publizitate tarteen aldean, ez dugu Premium konturik (horren iragarkia ere agertzen zaigu). Ni egiten ari naizen hau ere, Youtuberren publizitatea izan daiteke, baina horrela, marken bidez hitz egitera ohitu gara. Eta hitzik esan gabe ere, erakusleihen baten parte sentitzen naiz kalean paseatzen.

Negurako arropa gutxi, eta umeari trineoa erosi bitartean jertse hori bat ere jarri nuen erosketen artean. Umea dudanetik berehala identifikatzen ditut Decathlon produktuak, ez dut Nabaiji markaren hizkirik ikusteko beharrik: bainujantziak, patineteak, kamiseta termikoak, trineoak, flotagailuak... eta jertse horia. Ez dugu soinean hizkirik behar kartel publizitario izateko. Kaleko kolore bakarra nire jertsearena balitz bezala sentitzen naiz, eta kolorea horia ez, Decathlon balitz bezala.

Publizitatea, beraz, nahiko sotila izan daiteke. Ez dakit zein publizitate mota den marka jakin bat kontsumitzea derrigorrezko bilakatzea, adibidez, eskolako kontuez enteratu nahi baduzu. Whatsapp taldeak. Ez dago modurik beharrezkotasun horrekin amaitzeko? Badakit kontrako norabidean goazela, baina komunikazioa postaz zenean, zerbitzu publikoa zegoen, eta telekomunikazioekin ere existitu zen. Egia da zerbitzu hori, Whatsapp, doan dela (pentsa dezagun zerbitzu hori erabiltzeko gailuak eta bideak ere hala direla), dirutan, inor ez da kanpo geratzen. Baina gure alde ustiatuko ez diren beste kontu batzuk oparitzen ditugu: beraz, bai, doan da, eskubidetan baino ez dugu ordaintzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Dantza

Otsagabiko emakumeek beren herriko dantzak dantzatu dituzte lehen aldiz plazan. Itzaltzun ospatu den Gartxot egunean emakumez osatutako dantzari taldeak eman ditu Otsagabiko dantzak. Dantza hauek irailaren 7 eta 8an plazaratzen dira, eta orain arte mutilek osatutako taldeak dantzatu izan ditu.

Irlandera

Joan den abenduan, Ipar Irlandako mugimendu errepublikanoaren aldarrikapen historikoetako bat gauzatu zen: Irlandako berezko hizkuntza ofiziala da, lehenbizikoz, Ipar Irlandako sei konderrietan. Galesaren normalizaziorako 1993ko legearen eredu jarraitu du lege berriak.

Grafitiak

Sare sozialak arakatu eta Gasteizko grafitigileak zigortu nahi ditu Urtaranen gobernuak. "Pintaketa bandalikoak" jomuga, zerbitzu sekretuen alorrean erabili ohi diren OSINT teknikak erabiliko dituen enpresa bat kontratatzeko proiektua lizitaziora atera du Gasteizko Udalak.